



URUMEA

HORTZ KLINIKA | CLÍNICA DENTAL



**MINBIZIA TRATATZEN ARI
DIREN PAZIENTEENTZAKO
AHO-OSASUN GIDA**

Urumea Hortz Klinika - 2023

QR kode hau eskaneatu eta gure gida formatu
digitalean aurkituko duzu.



Paziente maitea:

Badakigu minbiziaren diagnostikoari aurre egitea izugarritzko erronka izan daitekeela. Ez bakarrik maila emozionalean, gorputzak jasaten dituen aldaketa fisikoengatik baizik.

Minbizia duten gaixoek beren gaixotasunarekin eta tratamenduaren parte diren modalitate terapeutiko ezberdinekin lotutako hainbat sintoma aurkez ditzakete ahoan.

Gida hau minbiziaren tratamenduaren AURRETIK, tratamenduan ZEHAR eta ONDOREN zure aho-osasuna zaintzeko informazio baliagarria emateko diseinatuta dago.


Gida honek ez du zure medikuaren aholkua ordezkatu nahi. Zure ahoa hobeto zaintzen lagundu nahi dizugu eta bidean lagun zaitzaketen baliabide osagarriak eskaini.

Ez dituzu zertan ondoren azaltzen diren ondorioak zure ahoan izango, baina garrantzitsua da horien berri izatea. Urumea Hertz Klinikaren taldea elkarlanean arituko da arazo guztiak prebenitzen eta tratatzen laguntzeko, baita tratamenduan zehar zure zalantzak argitzeko ere.

Gogoratu prozesu honetan laguntzeko gaudela.

Bihotzez,

Urumea Hertz Klinika taldea





*Minbiziaren
tratamendua
ahoko osasuna
egoera ezin
hobean hastea
beharrezkoa da.*

1. FASEA

TRATAMENDUA HASI AURRETIK

Minbizia diagnostikatzen den unean eta minbiziaren tratamendua hasi aurretik zure dentista bisitatzea da gure gomendioa.

Tratamendu onkologikoak jasotzen dituzten pazienteek normalean tratamenduan zehar eta ondoren ahoan konplikazioak izaten dituzte.

Zergatik joan behar duzu dentistarengana minbizia detektatu bezain laster?

Minbiziaren tratamendua hasi aurretik dentistarengana joan behar da. Dentistak honako hau egingo du:

- **Ahoa prestatu:** minbiziaren tratamendua ahoko osasuna egoera ezin hobean hastea garrantzitsua da.
- **Goiz detektatu:** tratamenduan zehar konplikatu daitezkeen lesioak, zauriak, ultzerak edo bestelako patologiak.
- **Etorkizuneko arazoan aurrean** (barrunbeak, sustrai-hodiak, infekzioak, etab.) **goiz jokatu.**



PREBENTZIOAK
*minbiziaren
 tratamendua
 jasango duen
 pazienteari onura
 anitz dakartza .*

AHOA PRESTATU


Lehenengo bisita honetan, zure ahoaren azterketa kliniko eta erradiologikoa egingo da, honako hauek aztertzeko eta detektatzeko:

- **Hortzen egoera**
 - Egoera onean ez dauden hortzak (barrunbeak, hortz hautsiak,...)
 - Ultzerak sor ditzaketen egitura anatomiko edo protesikoak.
- **Oietako egoera.**
- **Protesia (doikuntza).**
- **Mukosaren egoera.**
- **Ohitura ez osasungarriak.**

Batzuetan horrek erabaki oldarkorrak hartzera behartuko gaitu (hortz bat ateratzea, endodontzia bat egitea, etab.), epe ertainera eta luzera pazientearentzat onuragarriak izango diren erabakiak.

Aldi berean, ahoko bakterioen karga murrizteko profilaxia egingo da .

Medikuaren eta dentistaren arteko lankidetza oso garrantzitsua da kasu zehatz bakoitzean zuzen jokatzeko jakiteko.



Ahoa tratamenduaren arazo gehigarri bat ez dela ziurtatu.

2. FASEA

MINBIZIAREN TRATAMENDUAN ZEHAR

Tratamenduan zehar, ahoko osasuna ahuldu daiteke. Fase honetan ezinbestekoa da infekzio posibleak saihestea eta aho-higiene errutina zorrotza mantentzea. Erradioterapia edo kimioterapia jasotzen ari zaren bitartean tratamendu inbaditzaileak egitea saihestuko dugu.

Tratamenduaren bigarren mailako efektuak

Minbiziaren tratamenduak ahoan eragindako sintoma edo bigarren mailako efektu ohikoenak hauek dira:

- **Mukositis (oietako narritadura)**
- Ahoko lehortasuna edo Xerostomia
- **Aftak, ultzerak**
- **Listu lodia**
- Zapore aldaketak
- Murtxikatzeko zailtasuna, ahoa irekitzeko edo irensteko.
- **Infekzioak**
- **Hortzetako txantxarra** edo **oietako gaixotasunak** izateko arriskua areagotzea.

Albo-ondorio horietako gehienak ondoren deskribatzen ditugun gomendio higieniko-dietariei jarraituz arindu daitezke.

TRATAMENDUAN ZEHAR GOMENDIO OROKORRAK

Hauek dira minbiziaren tratamenduak zure aho osasunean duen eragina gutxitzen lagunduko dizuten gomendioak.

Prebentzioa klinikan

- **Profilaxi saioak** (garbiketa).
- **Fluorizazioak**.
- Hasierako fasean txantxarra diagnostikatzeko **erradiografiak**.
- **Beste patologia batzuen diagnostiko goiztiarra**: minak, ultzerak edo pazienteak detektatu ezin dituen ahoko beste lesio batzuk.
- **Protesiaren berrikuspena**.

Etxean aho-higienearen gomendioak

- **Ahoko higiene** errutina zorrotza mantendu: Pasta **1.450ppmm** fluorarekin eta **zurda biguneko eskuila** erabili.
- **Protesiak** eramaten badituzu, ziurtatu garbi daudela eta ondo egokitzen direla.
- Behar baduzu, listu-jarioa handitzeko **produktu espezifikoak** erabili.

Elikadura

- Janari leunak eta mastekatzeko errazak aukeratu.
- Janaria **zati txikitan** moztu.
- **Elikagaiak hotzak** edo giro-tenperaturan jan.
- **Elikagai hauek saiestu**:
 - Zitrikoak eta zukuak, elikagai pikanteak edo onduak.
 - Elikagai gaziak.
 - Janari gordinak

Hidratazioa

- **Ahoa hidratatuta** mantendu.
- **Alkohola edo karbonatutako** edariak **saihestu**.

AHO-HIGIENEA

Hauek dira minbiziaren tratamendua AURRETIK, ZEHAR eta ONDOREN mantentzeko oinarritzko aho-higienearen jarraibideak.

Eskuilatua 3 aldiz egunean

- **1.450 ppm**-ko ore fluoratua
- **Zurda biguneko eskuila**

Eman 2 minutu hortzak garbitzen. Egin ezazu barrutik eta kanpotik eta atzealdeko molaretan tematu.



Hortz haria eta hortz arteko eskuila

Egunean behin, hortzak garbitu aurretik, haria pasa. Hortzari loturiko haria igo eta jaitsi zerra mugimenduak oietara iritsi arte eginez .



Hortz arteko eskuila otorduen ondoren erabili, hortzen artean janaria kentzen laguntzeko.



Ahoko kolutorioa edo ahoko spray

Zure dentistak ahoko kolutorio edo **spray espezifiko bat** erabiltzea gomendatuko du minbiziaren tratamenduetarako. Kolutorio hauek ahoko lehortasuna baretu eta arintzeko aukera ematen dute, ahoko minak edo aftak prebenitzeaz gain. Horrez gain, ahoko zapore txarra neutralizatzen dute.

Gure aho-higienearen tutorialak QR kode hau eskaneatuz ezagutu.



NOIZ KONTSULTATU DENTISTARI?



943.27.24.00

609.47.40.14

01

Sendatzen ez diren minak




02

Tratamenduan hautsi den hortza



03

Protesi igurtziak edo desegokitzea




04

Oietako flemoia



05

Hortzen, oietan edo mihien hantura



06

Ahoko mina





*Bigarren mailako
efektu batzuk
minbiziaren
tratamendua jaso eta
luzera agertzen dira.*

3. FASEA

TRATAMENDU ONKOLOGIKOAREN ONDOREN

Tratamenduaren efektu gehienak tratamenduan zehar gertatzen diren arren, tratamenduaren ondoren **hilabete edo urte batzuetara** albo-ondorio edo konplikazio kroniko batzuk ager daitezke.

Tratamenduaren ondoren ahoan ohikoak diren ondorioak dira:

- Ahoko ehunetan kalteak
- Hezurren metabolismoaren alterazioak
- Hortzetako txantxarra
- Aho lehorra
- Infekzioak

Gure gomendioa da, behin terapia onkologikoa amaituta, hortz-kontsulta bat egitea zure aho-osasuna kontrolatu eta mantendu ahal izateko (barrunbeak, hortzak, muki-mintzak, etab.).

Zure **dentistak** aho-osasun ona mantentzeko beharrezko higiena eta kontrol-jarraibideak ezarriko ditu.

LABURPENA

1 Informazioa

Informazio egokia zure diagnostikoari eta tratamendu motari buruz lortu, profesionalekin aktiboki parte hartuz.

2 Elkarlana

Diziplinarteko komunikazioa eta informazio gurutzatua (medikua-dentista) kasuak ondo kudeatzeko ezinbestekoak dira .

3 Kontsulta

Zalantzarik baduzu, zure dentistari gaixotasunaren ondorioz edo tratamendu ezberdinen ondorio dituzun ahoko sintomak kontsultatu.

Hemen gaude
zuri laguntzeko




URUMEA
HORTZ KLINIKA | CLÍNICA DENTAL



Ramón María Lili Pasealekua, 7
Donostia
info@clinicadentalurumea.com

www.clinicadentalurumea.com
943 27 24 00
609 47 40 14